Aunque a nivel de ingeniería se explicará con más detalle en el tercer audiovisual, Marcia puede explicar a su hija: "A nuestro alrededor y debajo de nosotros circulan auténticos “ríos” de aire caliente. Bajo nuestros pies hay un verdadero hormiguero humano hecho de túneles invadidos por el humo, por donde pasan los esclavos tosiendo. Son ellos los que alimentan los grandes hornos de leña que tienen dos finalidades: por un lado, generar aire caliente y el humo que se introducen en el laberinto de los vanos tanto de las paredes como debajo los suelos, elevados gracias a pequeñas columnitas. Pero al mismo tiempo algunos de estos hornos calientan como si fueran ollas, el agua de la piscina del caldarium".

Bi pertsonaiak apodyterium/frigidarium gunera joango dira, eta tepidariumetik itzuliko dira. Oiasson, bi espazioak gune berean daude. Apodyterium/frigidariumaren absidearen eremuan labrum bat dago (gopor itxurako aska, ura ontzian metatzea errazten duena). Ama-alabak hara hurbiltzen dira garbitzera, edatera eta freskatzera. Nabarmentzekoak dira barnealdeko ur-hornigailuen apaindura eta soinua.

Los dos personajes se desplazarán hacia el apodyterium/frigidarium volviendo por el tepidarium. En Oiasso los dos ámbitos conviven en una misma zona. En la zona del ábside de apodyterium/frigidarium se localiza un labrum (pileta en forma de cuenco que facilita la acumulación de agua en el recipiente). Madre e hija se acercan a lavarse, beber y refrescarse. Resaltar el aspecto ornamental y sonoro de los surtidores de agua en el espacio interior.

Termen eraikinetik zuzenean sar zitekeen estuarioko uretara, eraikinaren oinetaraino heltzen baitzen, eta, beraz, igeri egin zitekeen ur irekietan. Ikus-entzunezkoa bukatzeko aukera bat da airetik ikustea ama-alabak nola doazen estuariorantz.

Desde el edificio termal se tendría acceso directo a las aguas del estuario que llegaban hasta el pie del edificio pudiéndose practicar la natación en aguas abiertas. Se puede acabar el audiovisual con el desplazamiento a vista aérea de madre e hija yendo hacia el estuario.

3. IKUS-ENTZUNEZKOA: OIASSOKO TERMEN ARKITEKTURA ETA INGENIARITZA.

AUDIOVISUAL 3: AQUITECTURA E INGENIERÍA DE LAS TERMAS DE OIASSO.

Ikus-entzunezkoak hiru minutu irauten du, eta Oiassoko termen arkitektura, ingeniaritza eta funtzionamendu teknikoa deskribatzen ditu.

Audiovisual de tres minutos, que describe la arquitectura, la ingeniería y el funcionamiento técnico de las termas de Oiasso.

Kasu honetan, Marciak eta haren alaba Juliak ingeniaritzari eta arkitekturari buruzko ezagutza tekniko aurreraturik ez dutenez gero, ikus-entzunezko hau Cayo Julio Nigerren familiaren ardatz narratibotik bereizi egiten da.

En este caso Marcia y su hija Júlia no tendrían conocimientos técnicos de ingeniería y arquitectura avanzados por lo que se desvincula este audiovisual del eje narrativo de la familia de Cayo Julio Niger.

Off-eko ahotsa emakume batena ere izan daiteke.

La voz en off también puede ser la de una mujer.

Normalean, leku beroetan (tepidariuma eta caldariuma) eguzki gehiago izateko orientatuta daude gune termalak.

Normalmente los complejos termales están orientados para permitir una mayor insolación de los lugares calientes (tepidarium y caldarium).

Vitruvioren arabera, eraikinaren orientazioa da lehenengo baldintzatzailea, eta adierazten du kokalekua aukeratzeko, bermatu egin behar duela hiriko lekurik beroena izan dadin, septentrion eta aquilon haizeetatik babestuta. Argitzen du, halaber, azpimarra eginez, ur beroa eta epela berotzeko labeetako leihoek neguko sartalde aldera eman behar dutela, edo, gutxienez, eguerdian eguzkiak eman diezaien lortu behar dutela, bainurako ordu egokia denean (Vitruvio, V, 11, I, 130).

Vitruvio establece como primer condicionante la orientación del edificio, señalando que la elección del lugar de emplazamiento debe garantizar que se trate del lugar más cálido de la ciudad, al abrigo de los vientos septentrión y aquilón. También aclara, insistiendo en ello, que los hornos para calefactar el agua caliente y templada deben tener sus ventanas orientadas al poniente invernal, o al menos lograr que les alcance el sol al mediodía, coincidiendo con la hora propicia de baño (Vitruvio, V, 11, I, 130).

Oiassoko bainuetxea Beraungo muinoaren goialdean kokatu zen, Junkaleko parrokia-elizaren kokalekuaren

El establecimiento termal de Oiasso fue localizado en la parte alta de la colina de Beraun, bajo el emplazamiento de

behealdean, portuko espazioa ikusteko moduan.

la Iglesia parroquial del Juncal, dominando el espacio portuario.

Oiassoko terma-multzoan, bi eraikuntza-fase identifikatu dira: lehena, eraikinaren sorrera- eta eraikuntza-aldiari dagokiona, K.o. I. mendearen erdialdean datatu ahal izan da, eta bigarrena, mende horren amaieran, eraikina osorik eraberritu zenean. Eraberritze horretan, nabariena izan zen lehen faseko estalki sinpleen ordez estalki gangadunak jarri zituztela; batez ere, gela nagusikoa nabarmentzen da.

En el complejo termal de Oiasso se han identificado dos fases constructivas: la primera correspondiente al período fundacional y de construcción del edificio, ha podido ser fechada a mediados del siglo I d.C. y la segunda a finales de esta misma centuria cuando el edificio fue reformado íntegramente, reforma en la que destacó la sustitución de las cubiertas simples de la primera fase por un sistema de cubiertas abovedadas, en especial la del aula central.

- Hasierako fasea: kronologikoki, K.o. I. mendeko erdialdeko urteetan gutxi gorabehera. Garai horretakoak dira bi praefurniak eta abside amortizatua.

- Fase inicial: cronológicamente aproximada a los años centrales del siglo I d.C. A esta época se corresponden los dos praefurnia y el ábside amortizado.

- Geroko fasea: kronologikoki, K.o. 100. urtetik 150era gutxi gorabehera. Hiri-birmoldaketa orokorra egiteko prozesuan gertatu zen. Aurreko espazioak sartzen dira.

- Fase posterior: aproximación cronológica sobre los años 100 y 150 d.C. Coincide con el proceso de remodelación urbana generalizada. Se incluyen los espacios precedentes.

Azkenik, erregistro arkeologikoek adierazten dute bainuetxea K.o. III. mendearen amaieran edo K.o. IV. mendearen hasieran abandonatu zela, dokumentatu ahal izan baita garai horretan haren egiturak oso prekarioan berrerabili zirela. Adibidez, frigidariuma abereak ukuiluratzeko erabiltzen hasi ziren.

Por último, los registros arqueológicos indican que el establecimiento termal fue abandonado a finales del siglo III d.C. o inicios del siglo IV d.C. ya que en este momento ha podido documentarse una reutilización muy precaria de sus estructuras: el reaprovechamiento del frigidarium como espacio para la estabulación de ganado.

- IV. mendera arte erabili zen, baina seguruenik erabilera aldatuta, aziendarentzako zintzarriak aurkitu baitziren eta zuloak irekita apodyterium/frigidariumeko kanaleko uretarako sarbidean.

- Permaneció en uso hasta el siglo IV aunque con posibilidad de un cambio de uso al encontrarse cencerros para el ganado y la apertura de huecos de accesos a las aguas del canal del apodyterium/frigidarium.

Hegoaldeko eta ekialdeko ertzak suntsitu egin dira azken mendeetan zehar (XVIII. mendeko biltegia gero Eskola Publikoen eraikina izango zen hegoaldeko muturrean, eta Salís hiribidean lur-erauzketa egin zen 1994an, ekialdeko mugatik).

Los bordes meridional y oriental han sido destruidos a lo largo los últimos siglos (almacén del siglo XVIII y posterior edificio de las Escuelas Públicas en el extremo meridional, y desmonte en la avenida de Salís en 1994 por el límite oriental),

Iparraldeko eta mendebaldeko mugek mantentzen dituzte aztarna arkeologikoak (ura ekartzeko bideak Sarasate kaleko bidean).

Los límites septentrional y occidental mantienen evidencias arqueológicas (canales de traída de agua en el vial de la Calle Sarasate).

Oiasson induskatutako terma-multzoak oinplano angeluzuzena du, eta, guztira, 1.000 m2 inguru. Horietan, bainatzeko lau gela bereiz daitezke, areto beroak berotzeko praefurniuma eta zerbitzu-gela batzuk (zoritxarrez ezin izan dira aztertu, hondeaketa-profilaren azpian daudelako), eta palestra txiki bat izan litekeena eta komunak.

El complejo termal excavado en Oiasso cuenta con planta rectangular y unas dimensiones totales de aproximadamente 1000 m^2, en los cuales han podido individualizarse cuatro de las estancias dedicadas al baño, el praefurnium que caldearía las salas calientes y una serie de estancias de servicio (que lamentablemente no han podido ser estudiadas por encontrarse bajo el perfil de excavación), así como una posible palestra de pequeñas dimensiones y unas letrinas.

Eskura dugun informazioarekin ezinezkoa da gunea eraikitzeko zer-nolako eraikuntza- edo dekorazio-teknikak erabili ziren zehatz-mehatz deskribatzea, Akitaniako eremuarekin duten loturatik haratago, handik etorri baitziren marmolezko plaketan erabilitako materialak.

La información de que disponemos imposibilita la descripción exhaustiva de las técnicas constructivas o decorativas empleadas en la construcción del complejo, más allá de su relación con la zona de Aquitania de donde proceden los materiales utilizados en lo aplacados marmóreos.

Oro har, konplexu termalak apaintzeko, eskulturak, itsas gaiei buruzko mosaikozko zoladurak eta horma-pinturak, palestrako eszenak, alegoriak edo jainkoen irudikapenak eta bainulariaren hatu-elementuak erabiltzen zituzten, eta

Normalmente los complejos termales se decoraban con esculturas, pavimentos musivos y pinturas murales de temática marina, escenas de palestra, alegorías o representaciones de divinidades y elementos del ajuar del

apaindurazko konposizioak giro desberdinetara egokitzeko joera zabalari jarraituz egiten ziren.

Ohikoak dira, halaber, jainkoen eta izaki mitologikoen irudiak, elementu erlijiosoak eta urarekin eta termetako giroarekin zerikusia zuten mezuak.

bañista, siguiendo la tendencia ampliamente extendida de adaptar las composiciones ornamentales a la finalidad de los distintos ambientes.
Son también habituales representaciones de divinidades, criaturas mitológicas, elementos religiosos y la transmisión de mensajes relacionados con el agua y los ambientes termales.

Eraikinaren barne-artikulazioa eredu erregularra eta simetrikoa da, luzetara kokatutako ardatz bakar batekiko, erdiko gela handi baten inguruan. Alde batean berogailua duten gelak daude, eta bestean, laguntzeko edo zerbitzua emateko gela osagarriak.

La articulación interna del edificio responde a un modelo regular y simétrico con respecto a un único eje dispuesto en sentido longitudinal en torno a una gran aula central, con las estancias calefactadas a un lado y una serie de estancias auxiliares o de servicio al otro.

Oiassoko termetan berokuntza bidez berotutako gelen antolamendua atzekoz aurrerako ibilbide batena da. Atzekoz aurrerako zirkuitu termal batean, ibilbidea bukatutakoan, erabiltzaileek berriro pasatu behar zuten gelak alderantzizko noranzkoan, irteeraraino, lehenengo apodyteriumetik pasatuz.

La disposición de las salas calefactadas en las termas de Oiasso corresponde a un itinerario retrógrado. En un circuito termal de tipo retrógrado los usuarios una vez concluido su itinerario debían recorrer de nuevo las estancias en sentido inverso hasta la salida, pasando primero por el apodyterium.

Berriz ere zirkuitu termalean barrena ibiliko gara, baina, oraingoan, ingeniaritzan jarriko dugu arreta.

Recorremos de nuevo el circuito termal pero esta vez con el foco situado en la ingeniería.

Alde batetik, termen ur-lerroari eta barne-zirkulazioari jarraituko zaie. Barruko lehen puntua galdara eta alveusa izango dira.

Por un lado se seguiría la línea de agua de las termas y su circulación interna. El primer punto interior será la caldera y el alveus.

- Praefurniuma eta hypocaustuma: egurrez elikatutako galdara berokuntza-sistemari konektatua dago zoladuraren edo hipokaustoaren azpitik. Berotu behar ziren geletako zoladura adreiluzko pilare txiki batzuen gainean (pilae) zegoen, eta, hala, zoru azpian aire-ganbera bat sortzen zen, suaren beroari esker berotzen zena. Aire beroa ganberatik igotzen zen, zoladura bero mantentzeko, eta kanporatu, berriz, hypocausis-ganbera kanpoaldearekin komunikatzen zuten hormen barruan prestatutako kanal edo tximinietatik kanporatzen zuten, errekuntzan sortutako gasaren eta kearen presioa arintzeko.

- Praefurnium e hypocaustum: caldera alimentada por medio de leña y conectada al sistema de calefacción por debajo del pavimento o hipocausto. El pavimento de las habitaciones que debían calentarse estaba levantado sobre unos pequeños pilares de ladrillo (pilae) creando así una cámara de aire por debajo del suelo, que se calentaba gracias al calor del fuego. El aire caliente subía por la cámara manteniendo caliente el pavimento y era expulsado por una serie de canales o chimeneas dispuestas en el interior de las paredes que comunicaban la cámara de hypocausis con el exterior, aliviando la presión del gas y el humo producidos en la combustión.

Praefurniak, oro har, harlangaitzez eta berrerabilitako adreiluzko materialez egina zegoen, karezko morteroz trabatuta. Material horiek sua ukitzean goritu eta gogortu egiten ziren, eta sendotasun handiagoa ematen zioten errekuntza-ganberari. Oso maiz, errekuntza-kanal osoan banatutako tobera zirkularrak izaten ziren, sua hobeto oxigenatzeko eta, beharrezkoa bazen, malguki batzuen bidez errazago kitzikatzeko.

Los praefurnia estaban construidos por norma general con mampostería y material latericio reutilizado, trabados con mortero de cal. Estos materiales en contacto con el fuego se rubefactaban y endurecían dando mayor solidez a la cámara de combustión. Muy frecuentemente tendríamos la presencia de toberas circulares distribuidas por todo el canal de combustión, las cuales permitían oxigenar mejor el fuego y, en el caso de que fuera necesario, avivarlo más fácilmente mediante una serie de fuelles.

Caldariumeko alveusa ur beroz hornitzen zuten galdarekin osatzen zen labearen egitura. Normalean, praefurniumeko kanalaren hormetako bati atxikita egoten ziren, edo, bestela, ubide horren beraren gainean zegoen plataforma batean, ur-depositua ere han jartzen zuten-eta, gehienetan metalikoa.

La estructura del horno se completaba con la/s caldera/s que abastecían de agua caliente el alveus del caldarium. Estas se encontraban generalmente adosadas a una de las paredes del canal del praefurnium o bien se situaban en una plataforma apoyada sobre este mismo canal sobre la cual se disponía el depósito de agua, generalmente metálico.

Pilae: Vitruvioren arabera, pilae sarea erabiltzea da berogailuz berotutako geletako zoladurari eusteko metodorik onena. Pilaeak 50 eta 110 zentimetro bitarteko altueraraino pilatutako adreiluzko kolomatxo txikiak ziren, eta tarte erregularretan jartzen ziren gelaren azalera osoa okupatuz, eta aretoaren goiko zoladura (suspensura)

Pilae: la utilización de un entramado de pilae es el método descrito por Vitruvio como el mejor para la sustentación del pavimento de las salas calefactadas. Las pilae, pequeñas columnillas de ladrillos apiladas hasta una altura que oscila entre los 50 y los 110 centímetros, se disponían a intervalos regulares ocupando toda la superficie de la

sostengatzen zuen hilara- eta zutabe-sare trinko bat osatzen zuten. Lehen geruza adreilu handiz osatuta zegoen, normalean hankabikoak, eta ateburu gisa gainazal lau bat sortzen zuten pilae horien gainean. Oiasson, bessales motako adreiluak erabiltzen dira, alboa 22 zentimetrokoa duten adreilu karratuak.

Caldariumean concameratioak zeuden.

• Concameratioa: aire beroak zirkulatzeko horma bikoitza. Concameratioa egitura-hormen eta kanpoko estalduraren artean dagoen espazioa da. Hipokaustotik aire beroa igotzeko aukera ematen du, eta bera da gelak berotzeko mekanismo funtzionala.

Pareten berokuntza-sistemak tubulatura edo concameratio izena du, eta oinarria da pareta bikoitz batek barnean ganbera huts bat sortzen duela. Horrek, hypocaustumarekin komunikatuta zegoenez, aukera ematen zuen aire beroak gelako hormetan zehar zirkula zezan, bero zedin lagunduz eta errekuntzako kea eta gasak tximinia batzuetatik kanpora zitezen ahalbidetuz.

Oiassoko sistemak tegulae mammatae erabiltzen zuen (zabaldu nahi izanez gero, beste terma batzuetako beste teknika batzuk deskriba daitezke, hala nola tubuli latericiia edo clavii coctiles). Oro har, lau angeluko piezak ziren, alboen neurria 45 zentimetro ingurukoa zen, eta lodiera, berriz, 2 zentimetro ingurukoa (museoko beira-arasetan badaude pieza batzuk ikusgai), lau protuberantzia edo titi kono-enbor formakoak zituen izkinetan, 5 zentimetroko luzera zutenak, eta zuloak zituzten, iltze edo zurtoin metalikoak erabil zitezen finkatzeko (museoko beira-arasetan piezak daude ikusgai). Plakak horma baten estaldura gisa jartzen ziren, irtenguneak gelaren itxitura-hormen gainean jarrita; horrela, bien tartean, hutsune bat geratzen zen airearen zirkulazioa ahalbidetzeko.

Tximiniak: hypocausis- eta tubulatura-sistemek behar bezala funtziona zezaten, gasak eraikinaren kanpoaldera hustu behar ziren, eta, horretarako, tximiniak jarri behar ziren bero-ganberetan, gelako paramentuei itsatsita edo akoplatuta, errekuntzako kea eta gasak kanporantz bideratzeko. Tximinia edo ke-irteera horiek funtsezko alderdiak dira, terma-multzoaren berokuntzak behar bezala funtziona dezan.

Putzu beroak eta hotzak opus signinum delakoaz estaltzen ziren.

• Opus signinuma: ibiltzeko edo likidoak edukitzeko espazioen estaldura. Karez, hareaz eta zeramika-zatiz egina dago, eta horrek iragazgaiztasuna ematen dio. Mota horretako zoladurek hainbat prestatze-geruza zituzten, azalera erregularizatu eta iragazgaizteko. Tarteka, modu ordenatuan antolatutako uharriak erabiltzen ziren, eta tarteka, neurri handiko pasarte anforikoak eta errautsaren eta zeramika birrinduaren kontzentrazioa oso handia zuten beste geruza batzuk. Gero, zoladura erregularizatzeko, azkenean, kare-esneko mortero meheago

estancia, configurando una tupida red de filas y columnas que sustentaba el pavimento superior de la sala (suspensura) compuesto por una primera capa de grandes ladrillos generalmente bipedales, que a modo de dinteles creaban una superficie plana sobre las pilae. En Oiasso se utilizan los ladrillos de tipo bessales, un ladrillo cuadrado de 22 centímetros de lado.

En el caldario encontraríamos las concamerationes.

• Concamerationes: doble pared para la circulación del aire caliente. La concameratio es un espacio situado entre los muros estructurales y el revestimiento exterior que permite la ascensión del aire caliente desde el hipocausto y que genera el mecanismo funcional que permite calefactar las salas.

El sistema de calefacción parietal, denominado tubulatura o concameratio, se basa en la creación de una doble pared con cámara interior hueca que permitía, gracias a su comunicación con el hypocaustum, la circulación del aire caliente a través de las paredes de la sala, favoreciendo el caldeo y permitiendo la evacuación del humo y los gases de la combustión a través de una serie de chimeneas.

En Oiasso el sistema empleaba tegulae mammatae (si se quiere ampliar se pueden describir otras técnicas distintas de otras termas como los tubuli latericii, o los clavii coctiles). Eran generalmente piezas de forma cuadrangular con dimensiones en torno a los 45 centímetros de lado y aproximadamente 2 centímetros de grosor (hay piezas expuestas en las vitrinas del museo) con cuatro protuberancias o mamelones de forma troncocónica en las esquinas de 5 centímetros de largo, perforados para permitir el uso de clavos o vástagos metálicos que facilitaran su fijación (hay piezas expuestas en las vitrinas del museo). Las placas se disponían como recubrimiento de un muro con las protuberancias apoyadas sobre los muros de cierre de la estancia de modo que quedaba entra ambos un hueco que permitiera la circulación del aire.

Chimeneas: para el correcto funcionamiento de los sistemas de hypocausis y tubulatura era necesaria la evacuación de los gases hacia el exterior del edificio, para lo que fue necesario colocar chimeneas en las cámaras de calor que, adosadas o encastadas a los paramentos de la estancia, condujeran el humo y los gases de la combustión hacia el exterior. Estas chimeneas o salidas de humos son uno de los aspectos fundamentales para el correcto funcionamiento de la calefacción de los complejos termales.

Las piscinas calientes y frías se revestían con el opus signinum.

• El Opus signinum: revestimiento de los espacios por los que circula o que contienen líquidos. Está hecho con cal, arena y trozos cerámicos, lo que le otorga impermeabilidad. Este tipo de pavimentaciones contaban con varias capas preparatorias para regularizar e impermeabilizar la superficie. Se se alternaba el uso de cantos rodados dispuestos de forma ordenada con fragmentos anfóricos de grandes dimensiones y otras capas donde la concentración de ceniza y cerámica pulverizada era muy alta. Posteriormente el pavimento era regularizado

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Ayuntamiento Udala irun
Fitxategia: IRUNGO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IRUN
Emisor: IZENPE
Sarrera data: 17:51

bat botatzen zen, eta kontu handiz talotxatzen zen.

una última lechada de mortero más fina la cual era dadosamente alisada.

Mortero hidraulikoa balnearioko instalazioen (putzuak, alveiak…) barne-estaldura gisa erabiltzeko, kanabera-erdia edo bozel-laurdena zuen junturetan, iragazketarik gerta ez zedin.

El empleo del mortero hidráulico como revestimiento interno de las instalaciones balnearias (piscinas, alvei…) contaban con una media caña o cuarto de bocel en las junturas para evitar filtraciones.

Gune beroetatik hotzetara joango gara.

Nos desplazamos de las zonas calientes a las frías.

Frigidariumeko bainuontziak hodi baten bidez hornitzen ziren, askotan berunezkoak zirenak, eta horietatik eramaten zen ura gertuko zisterna edo biltegi batetik. Hustubide txiki baten bidez husten zen, hasiera batean, gelaren zorura; izan ere, garai errepublikanoan, putzuak hustetik sobratzen zen ura gelak garbitzeko erabiltzen zen. Geroago, augustea garaian, putzuak lurpetik husten ziren, gehienetan zeramikazkoa zen hodi txiki baten bidez. Hodi hori hiriko saneamendu-sare orokorrarekin lotzen zen, baina, aurretik, komunak garbitzeko ere aprobetxatzen zuten.

Las bañeras del frigidarium eran abastecidas a través de una tubería, a menudo de plomo, que conducía el agua desde una cisterna o deposito cercano. La evacuación de la misma se realizaba en un primer momento hacia el suelo de la estancia a través de un pequeño desagüe,ya que en época republicana el agua sobrante del vaciado de las piscinas era empleada para la limpieza de las salas. Posteriormente, en época augustea, el vaciado de las piscinas era realizado de manera soterrada a través de una pequeña tubería – generalmente cerámica – la cual conectaba con la red de saneamiento general de la ciudad, pudiendo ser aprovechada previamente para la limpieza de las letrinas.

Frigidariumean, kanal bat dago azalerako urak jaso eta drainatzen zituena.

En el frigidarium se encuentra un canal que recogía y drenaba las aguas superficiales.

Oiassoko termetako frigidarium/apodyteriumean, opus spicatumarekin egindako zoladura nabarmentzen da. Opus spicatuma opus incertumaren aldaera bat zen, non harrizko harlangaitza txandaka okertzen baitzen, ilaren arabera, zirizatikatze gisa itxuratuz. Tipologia horren erabilera, normalean, zimenduetan eta lurzoruko drainatzeetan egiaztatu ahal izan da, eta oso ohikoa zen termetan erabiltzea, ura etengabe erabiltzen baitzen areto guztietan.

En el frigidarium / apodyterium de las termas de Oiasso resalta el pavimento con opus spicatum. El opus spicatum era una variación del opus incertum en la que el mampuesto de piedra se colocaba inclinándose de forma alterna, según las hiladas, formando como despiece de espigas. El uso de esta tipología se ha podido constatar normalmente en cimentaciones y en drenajes de suelo y era una práctica muy frecuente de utilización en las termas debido al constante uso del agua en todas sus salas.

Opus spicatumez zolatzea zeramikaz zolatzeko modu arruntena da, batik bat bainu-gelak edo putzuak zolatzeko. Horrela da Oiassoko termetan ere.

La pavimentación de opus spicatum es la pavimentación cerámica más común principalmente para la pavimentación de las estancias de baño o las piscinas, como es en el caso de las Termas de Oiasso.